

Leitza-Kornieta-Kosabel-Vía verde del Plazaola-Leitza.

↔ 14 km ⌚ 4 h 35 min 🌀 Circular

El PR®-NA 121 KORNIETA es un sendero circular que empieza y finaliza en la plaza de Leitza. Se asciende al paraje de Kornieta-Kosabel, situada en los pastizales montanos de los altos de Leitza, atravesando primero el bello casco urbano de Leitza, adentrándose posteriormente en una zona boscosa con robles, castaños y coníferas, y conforme se asciende, dando paso a hayedos adultos de gran belleza. Una vez ya en la zona rasa y más elevada, se progresa por pastizales montanos hasta llegar al túmulo de Kornieta-Kosabel, desde donde se puede disfrutar de una panorámica excepcional. El descenso se realiza por un bosque de hayas y alerces que permite bajar hasta Gitarranbuelta, y a través de la vía verde del Plazaola y dirección norte, se llega a un desvío con indicación de camino público y advertencia de cerrar la puerta después de pasar, que permite bajar hasta la plaza y punto de partida atravesando la parte vieja de Leitza.

El sentido recomendado para realizar el recorrido es de este hacia oeste, pasando por Sorogain (poste 1), Estensoroeta (poste 2), Kornieta (poste 3), Kornieta-Kosabel (poste 4), Gitarranbuelta (poste 6), desvío del Plazaola a Leitza (poste 8), casco urbano de Leitza (poste 7) y llegar al panel de inicio en la plaza.

Es un sendero recomendado para personas que anden habitualmente en el monte ya que tiene una longitud reseñable.

Leitza-Sorogain-Leitza.

↔ 3.7 km ⌚ 1 h 20 min 🌀 Circular

Variante corta del sendero PR®-NA 121 KORNIETA, y pensado especialmente para el público en general (familias con niños de corta edad, paseantes...). Este recorrido circular empieza y finaliza en la plaza de Leitza. Primero se asciende al paraje de Sorogain (poste 1) por el PR®-NA 121, en cuyo cruce viene ya señalizada el PR®-NA 121.1, después pasamos por la Ermita de Santa Cruz, y vamos bajando por un camino estrecho y rocoso (en muchos tramos antigua calzada) entre prados y arbolados, disfrutando de unas vistas muy bonitas del pueblo de Leitza, hasta bajar por detrás de la Iglesia al poste 7, ya en el casco urbano, y siguiendo la señalización, llegaremos a la plaza del pueblo y al panel de inicio. También se puede hacer en sentido inverso aunque la ascensión es un poquito más exigente.

Leitza-Kornieta-Leitza.

↔ 11.1 km ⌚ 3 h 55 min 🌀 Circular

Segunda variante del sendero llamado PR®-NA 121 KORNIETA. Recorrido circular recomendado para personas habituadas a andar por el monte, dado que el desnivel acumulado es similar al recorrido principal. Empieza y finaliza en la plaza de Leitza. Se asciende al paraje de Kornieta (poste 3) siguiendo el PR®-NA 121, pasando por Sorogain (poste 1), luego por Estensoroeta (poste 2). En Kornieta (poste 3) se señala el PR®-NA 121.2 y desde aquí se llanea por una zona muy bien conservada y gestionada por los ganaderos de Leitza, para finalmente bajar a Estensoroeta (poste 2), donde se indica la variante PR®-NA 121.2; desde aquí volvemos hasta Sorogain (poste 1), y por la variante PR®-NA 121.1 pasando por la Ermita de Santa Cruz, volvemos hasta el casco urbano de Leitza. También se puede hacer en sentido inverso desde Estensoroeta (poste 2) a Kornieta (poste 3).

Kornieta-Kosabel-Ansolitzaundi.

↔ 0.4 km ⌚ 0 h 10 min 🌀 Ida y vuelta

Hay una derivación que va desde Kornieta-Kosabel (poste 4) al monte de Ansolitzaundi (poste 5). Este tramo tiene el objetivo de llegar al alto del monte Ansolitzaundi desde el sendero principal, para disfrutar de unas espectaculares vistas panorámicas recorriendo un tramo de sólo 400 m sin dificultad destacada por el pastizal.

Tal como se puede apreciar en el mapa aparte de las recomendaciones que hemos dado se pueden realizar otros recorridos diferentes combinando los diferentes tramos a gusto de los usuarios de este recurso turístico.



Leitza-Kornieta-Kosabel-Plazaolako bide berdea-Leitza.

↔ 14 km ⌚ 4 h 35 min 🌀 Zirkularra

PR®-NA 121 KORNIETA Leitzako plazatik abiatu eta bertan bukatzen den ibilbide zirkularra da, eta bertako mendi-larreetan dagoen Kornieta-Kosabel ingurura igotzen da. Ibilbidea Leitzako herrigune ederrean hasten da eta, hura zeharkatu ondoren, haritz-, gaztainondo- eta konifera-basoetan barna egiten du bidea. Gora egin ahala, edertasun handiko pagadi helduak ikus daitezke. Behin goiko aldera iritsita, inguru garbi eta altuenean, larretan barna eginen dugu bidea, Kornieta-Kosabelgo tumulura iritsi arte. Handik ikusten den panoramika bikaina da.

Jaitsiera pago eta alertze baso batetik egiten da, eta bertatik Gitarranbuelara iristen da. Gitarranbuelatik, Plazaolako natur-bidea iparraldeko norabidean hartuta, bide publiko baterako norabidea adierazten duen saihebidera iritsiko gara. Bidea hartzerakoan ataka ixteko oharra dago. Hortik ibilbidearen hasierara itzul daiteke, herriko plazara hain zuzen ere, Leitzako alde zaharra zeharkatuta.

Aukerarik egokiena ibilbidea ekialdetik mendebaldera egitea da, honako inguruetatik edo tokietatik igaroz: Sorogain (1. zutoina), Estensoroeta (2. zutoina), Kornieta (3. zutoina), Kornieta-Kosabel (4. zutoina), Gitarranbuelta (6. zutoina), Plazaolatik Leitzarako saihebiderea (8. zutoina), Leitzako herrigunea (7. zutoina) eta, bukaeran, Leitzako plazako abiapuntua.

Ibilbide hau mendian ibiltzeko ohitura dutenentzat da gomendagarria, duen luzera aintzat hartzeko modukoa baita.

Leitza-Sorogain-Leitza.

↔ 3.7 km ⌚ 1 h 20 min 🌀 Zirkularra

PR®-NA 121 KORNIETA ibilbidearen aldaera laburra, bereziki familientzat, adin txikiko umeak dituztenentzat, eta paseoan ibili nahi dutenentzat egokia. Leitzako plazatik abiatu eta bertan bukatzen den ibilbide zirkularra da. Sorogain (1. zutoina) izeneko ingurura igotzen da, PR®-NA 121 ibilbideari jarraituz, eta bertan dagoen bidegurutzean PR®-NA 121.1 ibilbidearen seinalea ikusiko dugu. Ondoren Santa kruz ermitatik pasa eta bide estu eta harritsu batetik jaitsiko gara (hainbat zatitan antzinako harbidea da), belardi eta zuhaitz artean, Leitzako ikuspegi eder askoz gozatzuz. Elizaren atzeko aldetik igaro ondoren 7. zutoinera iritsiko gara. Herrigunean gaude dagoeneko, eta berehala herriko plazara eta ibilbidearen hasierara iristeko seinaleak ikusiko ditugu. Ibilbidea alderantzizko norabidean ere egin daiteke, baina iagoera neketsuagoa da.

Leitza-Kornieta-Leitza.

↔ 11.1 km ⌚ 3 h 55 min 🌀 Zirkularra

PR®-NA 121 KORNIETA ibilbidearen bigarren aldaera. Ibilbide zirkularra, mendian ibiltzera ohituta daudenentzako egokia, pilatutako desnibela ibilbide nagusiak duenaren antzekoa baita. Leitzako plazatik abiatu eta bertan bukatzen da.

Ibilbidea, PR®-NA 121 jarraituz, Kornieta igotzen da (3. zutoina), Sorogaindik (1. zutoina) eta Estensoroetatik (2. zutoina) igaroz. Kornieta PR®-NA 121.2 ibilbidearen seinalea dago. Bertatik, Leitzako abeltzainek ederki zaindutako eta kudeatutako inguru zelai bat zeharkatuz, ibilbidea Estensoroetara (2. zutoina) iristen da berriz. Hemen, PR®-NA 121.2 aldaeraren seinalea ikus daiteke. Bertatik Sorogainera itzuliko gara (1. zutoina) eta, PR®-NA 121.1 aldaeratik, Santa Kruz ermitatik igaroz, Leitzako herrigunera iritsiko gara. Alderantzizko norabidean ere egin daiteke, Estensoroetatik (2. Zutoina) Kornieta (3. Zutoina).

Kornieta-Kosabel-Ansolitzaundi.

↔ 0.4 km ⌚ 0 h 10 min 🌀 Joan-etorria

Badago Kornieta-Kosabeletik (4. zutoina) Ansolitzaundi mendira joateko aukera. Zati honen helburua ibilbide nagusitik Ansolitzaundi mendiko gainera iristea da, panoramika eder eta ikusgarriak gozatzuz, larreetan barna 400 metroko bide-zati erraz bat eginez.

Mapan ikus daitekeenez, guk gomendatutako ibilbideez gain bestelako batzuk ere egin daitezke, ibilbide ezberdinak norberaren gustuaren arabera elkartzuz.



Inoiz ahaztuko ez duzuen ibilbidea

Un recorrido que no os dejará indiferentes

PR®-NA 121 KORNIETA

LG NA [2308-2019](#)

DL NA [2308-2019](#)

Seinalizazioa / Señalización

Bidea hemendik doa	Norabide okerra	Norabide aldaketa
Continuidad del sendero	Camino incorrecto	Cambio dirección



Leitzako Udala
Tlfno : 948 51 00 09
www.leitza.eus



Nafarroako Erresuma  Reino de Navarra



FONDO EUROPEO AGRICOLA DE DESARROLLO RURAL. EUROPA INVIERTA EN LA S ZONAS RURALES

Nafarroako Gobernua  Gobierno de Navarra



LEADER

